

AINHOA ABENDAÑO

GAZTERIAREN KONTSEILUKO BIZKAIKO KOORDINATZAILEA

Ume eta gaztetxoek astialdian diharduen 400 talde inguru dagoz, herrialdean. Kontseiluak koordinatuta, Astialdi Foroa sortu dabe, euren arteko sarea indartzeko.

«Astialdia sustatzeko plangintzea egiten gabilz»

Hasier Rekondo | BILBO

Astialediko hezitzaileen alorreko taldeek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak koordinatutako Astialdi Foroa sortu dabe, etorkizunaren ganeko hausnarketea egiteko. Gizartean egon diran aldaketen aurrean, mogimintua sustatzea izango dau erronkea Foroak. *Zure Astialdia Sustatu* lelopeko jaialdia eratu eben, joan dan zapatuan, Bilbo-ko Areatzan.

■ **Baloreen hezkuntzan eta gizartean egon diran aldaketak izan ditu eztabaida abiapuntu Foroak. Zeintzuk izan dira aldaketak?**

Gurasoen eta umeen gustuak aldatu egin dira. Teknologia barriek eragin handia daukie ume-kan. Ganera, eskolatik kanpo-ko ekitaldiak ugaritu egin dira: gero eta ume gehiago dagoz musika eta dantza ikastaroetan, edo kirolean. Errealidade barri-*ra* egokitu beharrean gagoz, egituraketan, ekitaldien antola-*kuntzan*, pentsakeran.

■ **Ze baldintzatan egiten dabe lan astialdi taldeetako begiraleek?**

400 bat talde inguru dagoz, gaur egun. Talde gehienetan nagusi dira boluntarioak; trebakuntza eskoletan eta koordinadoretan, ostera, langile ordainduak. Batzuk udalekin sinatutako hitzarmenei esker bizi dira. Asko auzo eta herri txikietan dabilz; hau dala eta, sarea sortzeko beharra ikusten genduan. Taldeen arteko komunikazioa garatu gura izan dogu, hasieran. Kanpora begira, abendurako prest egongo dan web orrialdea, erreferentzia bihurtu gura dogu: dirulaguntzen ganeko egutegia eta informazio lagungarria eskaini-ko deusegu taldeei.

■ **Ze balore sustatzen dozue astialdi taldeotan?**

Esaterako, ingurumena zaintzea, naturea maitatzea. Alkarbizitzaren baloreak, taldean lan egiteko motibazioa. Kontuan izan behar da, umeak zortzi urterekin sartzen dirala taldeetan. Umezaretatik, bakotxaren

Despierta tu Tiempo Libre!
INIGO AZKONA

GIZARTE ALDAKETAK

“Umeen gustuak aldatu egin dira. Teknologia barriek eragin handia daukie horretan»

BALOREAK

“Umezaretatik, bakotxaren gauzarik onena ateraten ahalegintzen gara»

gauzarik onena ateraten ahalegintzen gara. Norberaren sormenerako ahalmenak azalartzen laguntzen deusegu.

■ **Astialediko begiraleek ezaugarri berezirik euki behar dabe?**

Gogoia batez be, boluntario guztiei eskatzen jaken gogoia. Bestetik, aitatutako baloreetan sinistu behar dabe. Balore unibertsalak dira, konpromiso mailea erakutsi behar dabe; norbere buruarekin koerentzia eukitea, azken baten. Hezitze lana ez da hiru-lau orduko kanpamentu baten amaitzen.

■ **Foroaren proiektuak laburbildu zeinkez?**

Astialedia sustatzeko plangintzea prestatzen gabilz, datozen hiru urteetarako. Udal handiekin hasiko gara: erronkak, ekin-*tzak*, barne formazioa edo lokal-*en* faltea jorratuko ditu plan barriak, besteak beste. Foru Al-*dundiak* babestuko dau.

Beste alde batetik, abendu-*aren* 3 eta 4rako, astialedia eta euskerearen ganeko jardunaldiak eratuko ditugu, Bilboko Bolsa auzoetxean. Begirale eus-*kaldunak* egongo dira, erabile-*rearen* ganeko eztabaidatzeko.

LABURREAN

BILBO

Vicente Caballerren piroteknia etxe valentziarrak irabazi dau Aste Nagusiko Golardo Berdea saria

Vicente Caballer enpresek jaso dau, pasa dan Aste Nagusi-ko piroteknari-*ek* ekologikoenaren saria. Marian Caballerrek, jabearen alabeak, jaso eban atzo Golardo Berdea Jose Sabas Bilboko udaleko Kultura eta Turismo zinegotziaren eskutik. Abuztuaren 18an hartu eban parte Caballer piroteknia-*Na-*zinoarteko Lehiaketan. Union Española de Explosivos en-*pre*seak burutu eban hondakin piroteknikoen ganeko doa-*neko* azterketea. Metal astunen analisisien ostean, Caballer eta Martin piroteknia-*k* bardin egozan. Ibilgeak (kartoiak, pa-*pera*) ikertzerakoan gailendu jakon valentziarra.

LITERATUREA

III. Literatur Jardunaldietan, gastronomia da nagusi

Bidebarrieta Liburutegian gaur aurkeztuko dituen III. Literatur Jardunaldiek literaturearen eta gastronomiaren arteko hartu-*emona* jorratuko dabe. *Historias para comer y platos para leer* izen-*buruz*, zemendiaren 26tik abendu-*aren* 2ra arte, irakurketak, ma-*hainguruak* eta Mikel Alonsoren argazki erakusketea eratu ditue.

ETXEBARRI

101 ikaslek emon dabe izena udal euskaltegian 2001-2001 ikasturtean, igaz baino % 50 gehiagok

101 ikaslek emon dabe izena aurten Etxebarriko udal eus-*kaltegia*, igaz baino % 50 gehiago, udal iturriek adierazota-*koaren* arabera. 2001-2002 ikasturtean matrikulea eginiko ikasle gehienek asteroko hamar-hamabost orduko progra-*metan* dabilz ikasten. Honezaz ganera, gurasoentzako ikas-*taro* bereziak be eratu ditue. Ikasturtean zehar, hamar ordu-*ko* ikastaroak izan ziran arrakastatsuenak, ikasle kopuruari jagokonean. Bestetik, igazko udan, hamabost ikasle ikastaro trinkoa izan ziran. Etxebarriko udalak dirulaguntzak eskain-*tzen* deusez zenbait baldintza beteten dituen ikasleei.